

...eta

kitto!

878 zkia.
2014-11-14



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopiaren kirurgia:

- Femtosegundoko laserrarekin: 1.150 € begi bakoitzeko
- Excimer laserrarekin: 975 € begi bakoitzeko

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. - 20600 EIBAR - Tel.: 943 201 844 - www.clinicarecalde.com



+ OSASZUN GAZDA

Dentistak

ARAT Hartz Klinika
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA



Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. esk. Tel: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hartz klinika

Asko dira
gure hartz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hartz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tlf.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

GASTESI
Hartz-Klinika
Ane Gastesi



Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

FISIOTERAPIA

ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zkia.

OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA

S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

ASTEAN ESANAK

"Helduek memoria hobea dute, baina baita oroitzapen faltsuak ere. Haurren oroimena ez da hain eraginkorra, baina, era berean, gertaera gutxiago *asmatzen* ditu"

(KEPA PAZ-ALONSO, IKERTZAILEA)

"Ia banketxe guztiek zigortu egiten gaituzte zenbaki gorrietan geratzen garenean: 13 euro, batez beste. Hori ez da legezkoa. Ez hori bakarrik: egoera hori konpontzeko eskatuz beste 25-40 euro kobratzen digute, tramitearen kostoa ehuneko batzuetakoa denean"

(CARLOS MANUEL SANCHEZ, KAZETARIA)

"Gernika-Lumoko antolatzaileek Ibilaldia asteburuz aldatu eta Eskola Publikoaren Jaiaren egun berean egitea erabaki dute. Orain bi urte, Athletic zen prioritariora; orain Europarako bozketak. Balmasedako eskola publikoaren jai izorratuz, orain dela 30 urteko eztabaida antzura bueltatu behar gara berriro?"

(GALDER GONZALEZ, KAZETARIA)

"Nork esaten die mediku elebidunak, elebidun izateagatik, elebakarrak bezain onak ez direnik? Ezagutzen ditugun mediku euskaldun gehienek hiru eta lau hizkuntzatan hitz egiten dute eta, hain zuzen ere, ingelesa da berri zientifiko interesgarrienak argitaratzeko erabiltzen den hizkuntza"

(XABIER ZARANDONA, MEDIKUA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KAKA-NAHASTE.- Saltsa, nahaste-borraste. "Han agertu zan kaka-nahastiak ez eukan akaburik".

KAKA-UME.- Haur txikia, ojalietako umea. "Gaurko egunian, erozein kakaumek jaukaz hirurogei urte". (Txantoiaren esakera, laurogeita urteekin). Ume-moko, gaztelerazko 'nifato'. "Juari hamendik kakaumiori!".

KAKA ZAHARRA!- Kaka!, haserrea adierazteko interjekzioa indartzeko. "Kaka zaharra! Oстера be jausi naiz lokatzatan".

eskutitzak

KEZKA TXIRRINDULARI TALDEAREN INGURUAN

1995. urteaz geroztik egiten dihardugun moduan, aurten ere zuekin harremanetan jartzen gara gure txirrindulari taldeen jardueren berri emateko. Gure taldeak azaroaren amaieran aurkezten bagenituen ere, iaz epeak agortu arte itxaron behar izan genuen, emakumezkoen taldea desagertu ez zedin soluzioren bat aurkitu arte, eta aurten egoera berean gaude gizonezkoen taldearekin.

Zalantza askorekin eta Eibarko Klub Deportiboan dokumentazioa aurkezteko epea amaituta ekingo diogu denboraldiari, baina talde amateur (Elite-23 azpikoak) izango den ala ez jakin barik. Beste behin ere, Gipuzkoako Diputazioaren diru-laguntzen sistema piramidalak kompetentzia desleiala eragin du kategoria bereko taldeen artean, eta irabazi asmorik gabeko klubak ito egiten ditu.

Piramidearen gailurrean Oreki Fundazio kulturalak aukeratutako taldea egongo da; jasotzen zuten laguntza desagertu ondoren (Gipuzkoako Diputazioarena) GIPUZKOA izena hartuko duen taldearen laguntza osoa hartuko du bere gain.

Hitzarmenaren arabera Oreki jasotzen dituen

180.000 euroetatik 30.000 erabiliko ditu kategoria horretako Gipuzkoako gainontzeko taldeen artean banatzeko, txirrindulari gipuzkoarrak prestatu eta nabarmentzen direnak talde liderrera pasatzeko konpromisoarekin. Hitzarmen horrekin desadostasuna agertzeko, oinarria osatu beharko luketen taldeek gutuna igorri zieten Gipuzkoako Federazioari eta Diputazioari irtenbide bat eskatzeko, gastuak eta betebeharrak hobeto bana zitezten; baina denboraldia hasteko bi aste falta direnean, ez da erantzunik ailegatu.

Iazko denboraldian Eibarko Klub Deportiboa egoeraren aurrean kexatu zen eta inolako laguntzarik jaso ez zuen Gipuzkoako talde bakarra izan zen. Aurten, gainontzeko klubek bat egin eta gero, ikusiko dugu zer gertatuko den.

Bitartean, erabaki bat hartu beharra zegoen eta Klub Deportiboak, 20. urtez jarraian, Debarreneko gazteen alde egingo du berriro, txirrindularitza beste herri batzuetara joan gabe praktikatu dezaten.

Hogei urte horiek ospatzeko maillot berria aterako dugu aurtengo denboraldirako.

KLUB DEPORTIBOKO TXIRRINDULARITZA BATZORDEA



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILERA: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Italiako zirkuaren ikuskizun barrixa lau egunetan

Oin dala egun gitxi Azpeittixan egindakua bidetik, iaz be gurian egon zan Italiako Zirkuak "Bravo Bravissimo" ikuskizun barrixa eskinduko dau Eibarren. Asteburuan izango da, Torrekua kalia (Eroski parian) ipiñi daben karpán. Azken aldián Euskadin, herri-herri ibilli dan zirkuak espektakulari hainbat barritasun gehittu detsaz. Hogeitasei artistak eskindutakuen artian, bestiak beste, paillazuak, kontorsionistak, laser-gizona, gautxuak, magia ikuskizunak, malabarak, trapezio-balanze numerua, hula-hopa

eta beste batzuk ikusteko aukeria eukiko dau jendiak. Gaur funziño bi eskinduko dittue (lehelengua 18.00xetan eta bigarrena 20.30xetan); zapatuan eta domekan, barriz, hiruna funziño egingo dittue, bat eguardixan (12.00xetan) eta beste bi arratsaldian (17.00xetan eta 19.30-xetan); eta astelehenian, azken egunian, funziño bakarria egongo da, arratsaldeko 18.00-etan. Funziño bakotxaren aurretik, ordu bi lehenago zabalduko dabe txarteldegixa, nahi dabenak sarrerak erosteko. Tokixaren arabera prezia mer-



Gaurtik hasitta, astelehenera arte izango da zirku gurian. Guztira, bederatzí funziño eskinduko dittue.

kiagua edo karuagua izango da (10-15 euro bittartian) eta, horrekin batera, promozíño berezixak dakez deskontu-propagandia dakenendako

eta internet bidez sarrería aurretik erosten dabenendako. Informaziño gehixagorako ilcircoitaliano.com webgunian begiratu leike.

Neguko eskintza berezixak kalia, danon eskura

Eguaztenian inaugurau eben gaur arte zabalik egongo dan neguko beherapenen azoka berezixa. Beherapenen azken txanpan sartuta eta sasoi barrixari ekin baiño

lehen, Eibar Merkataritza Gune Irekia alkarteko dendarixak Toribio Etxebarria kalera neguko eskintza berezixak etara dittue, karpak babestutako postuetan mer-

ke-merke saltzeko. Azokia martxan egon dan hiru egunetan goizeko 10.00etatik gabeko 20.00etara zabaldu daben azoka berezixan 21 establezimenduk dihardue parte hartzen, denetarik saltzen: Cedry, De Capricho, Gloss gazte moda, Gratzina, Guby neskak, Guby mutillak, Lide, No Comment, Nona, Quetzal, Xtrem, Ikusimakusi, Kopíña, Txukuna, Ttiki, Errebal kirolak, Etxedreams, Burbujas y Mas, Katetxo, Farmalur eta El Corte Ingles. Gaiñera, Kuttabankek txiki-parka ipintzeko lokala laga detse dendarixeri, holan arratsaldian erosketak egin nahi dittuenak umiak jolasian zebizen bittartan lasaixago ibiltzeko aukeria euki deisan.




Kontenedore marroia etxe gehixenetan dago

Urtarrillaren 31ko datuak eskuan, bosgarren kontenedoria (hondakíñi organikuak jasotzeko edukiontzi marroia) Eibar-ko etxe gehixenetara (%90 baiño gehixagora) sartzia lortu dabe eta 10.448 famelixak hondakin organikuak bereizi eta hórrek jasotzeko kontenedorieta- ra botatzeko konpromisua hartu dabe. Bosgarren edukiontzi- xa erabiltzen ez eben heritta-

rreri zabor-billetaren tasa igoko zetsela aditzera emon eta segiduan hasi zan jendia kontenedore marroirako izena emoten, denpora gitxittan interese zekenen kopurua hirukoiztuta. Izan be, erabiltzen ez ebenak gehixago pagau bihar-ko ebela ezagutzera emon aurretik Eibarren 3.369 famelixa (%31'84) baiño ez eguazen izena emonda. Edozelan be, agin-

Kontenedore marroia erabiltzeko konpromisua hartu dau %90xak neurri barrixarekin, hasieran bakarrik %30ak hartu ebanian.



tarixak oso pozik dagoz jendiak emondako erantzunarekin. Izan be, tasa igotzeko neurrixakin nahi eben emaitza, ahalik

eta jende gehixenak bosgarren kontenedoria erabiltzeko konpromisua hartzia, betetzia lortu dabe.

Basarritar gaztiak santaeskian

Erretratuan ikusten ditzuzuen basarritar gaztiak santaeskian urten eben aurreko as-
teburuan Gorosta eta Mandiola auzuetan.



Zapatu goxian hasi eta illundu arte, basa-
rrik-basarri kantuan ibilli ziran, Oier Baltzo-
la eta Eneritz Alberdi trikitilarixak eta Juan

Mari Narbaiza eta German Meabe bertolarixak lagundu-
ta. Eibarko basarri-
xetako gaztiak oin
dala urte batzuk
ekin zetsen Santa
Ageda egunaren in-
guruko santaeskiari
eta harrezkero urte-
ro eutsi detse ko-
plak kantatzeko ohi-
turiari.

Kaleratziaren gaiñeko salaketia

Mallabiko Rheyde Lanabesak lantegiko bihargin bat "semia zaindu ahal izateko lanorduak murrizteko eskatziagaittik" enpresatik bota dabela salatu dau CCOO sindikatuak. Erredak-
ziñora bialdutako idatzixaren arabera, "hogei urtian goiz eta arratsaldez biharian jardun eta
gero, enpresako arduradunak ordutegixa aldatu eta aurrerantzian errelebotan jardun bihar-
ko ebaia emon zetsen
aditzera gure sindikatu-
ko ordezkarixa izandako
bihargiñari. Ordutegi-al-
daketia zala-eta, semia
atendidu ezinda ibilliko
zala ikusitta, lanorduak
murrizteko eskatu eta,
egunian bertan, urtarril-
laren 14an kaleratu
eban enpresiak".



autuan

N.A.N. ETA PASAPORTIA

Hamendik egun batzutara Donostian NAN eta pasaportia tramitatzeko bulegua tokiz aldatuko dabe eta, trasladua egitten daben bittartian, hillaren 20xan eta 21ian itxitta egongo da. Hillaren 24tik aurrera, barriz, komisarixa barrixan hartuko dabe jendia, Urumea pasialekuan (Koipe inguruan). Hitzordua eskatzeko telefonua betikua izaten segiduko dau: 902247364.



MINBIZIDUN UMIAK

Bixar Minbizixa daken umien naziñoarteko eguna dala-eta, ASPANOGI gurasuen alkartiak omenaldixa egingo detse Super Amara eta Donostiako erraldoi eta buruhandixen konparsari, alkartiari emondako laguntasuna eskertzeko. Ekitaldixa 12.00xetan hasiko da, Riberas de Loiolako Super Amaran.



Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1 Kardiologia	11 Barne Medikuntza
2 Zirugia	12 Radiologia
3 Dermatologia	13 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	14 Traumatologia
5 Anlisi Klinikoak	15 Koloproktologia
6 Ortodontzia	16 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	17 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	18 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	
10 Neurologia (BERRIA)	



EIBAR **ELGOIBAR**



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra
☎ 943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

asteko 20 datua

pago barri sartuko dittue Arraten, hilda eta hondatuta eguazenen tokixan eta 5.000 euro pagauta. Pagadixan beste 64 pago enborra hutsik baiña bizirik dagoz eta 94 gehixago sasoi betian.

Akademixen lehen azokia

Asteburuan, zapatuan eta domekan Eibarko Akademixen lehen azokia egingo da Untzagan, udaletxe pareko karpa barruan. Udalaren ekimenez egingo dan ferixan, Eibarren zeozer irakasten daben hogeitabi akademixak hartuko dabe parte. Asmua, gure herrixan zenbat gauza ikasi leixiazzen herritarrei bertatik bertara erakustia da eta, horretarako, azokan parte hartzeko izena emon dabenak euren eskintza ezagutzera emoteko postua eukiko dabe. Parte hartzeko izena emon dabenak Adhara Zentroa, Adolfo Jainaga Trikitixa Eskola, AEK euskaltegixa, Buruz Gimnasia Cerebral, Eibar Bitartekaritza Zerbitzua,

Elena Kortaberria, El Taller, Filoaula, Igor Gaviñan, Ikasnet, Itzamna Akademia, Juan San Martin Liburutegixa, Kilt Englis Calses, Link Idiomas, Maite Arriaga-Talleres Creativos, Margo eta Marrazketa Udal Eskolia, Miriam eta Amaia Psikopedagogixia, Nekane Pastor Akademia, Round Table Languages, Sakun Akademia, Udal Euskaltegia eta Zeramika Udal Eskolia dira. Aurrera begira, akademixen eskintzaren zabalkundia ahalik eta haundiña izateko asmuarekin, bakotxak azalpen zihetzaguak emoteko hitzaldi



eta bestelakuak antolatzeko asmua dake. Gaiñera, azokia ezagutzera emoteko posterra eta eskintzaren barri emoten daben katalogua emon dittue argittara.

Berreibar Kulturalak aurrera

M-etxea kolektibuak Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin antolatutako jarduerak martxa betian dabiz. Urtarrillaren amaiera aldian Berreibar Ekimen Kulturala presentau ebenetik astero, eguen arratsaldero hitzaldixa eskindu dabe Por-



telean. Oñ arte egindakuetan, bestiak beste, gerra osteko Eibarko industriaren historia eta paisaje industrial patrimonixo izatera pasatziaz berbetan jardun dabe. Hurrengo hitzaldixa hillaren 20xan emongo dabe Amaia Apraiz eta Ainara Martinezek eta Eibarko industria-arkitekturia izango da ardatza eta hillaren 27xan, barriz, Iñaki Uriartek "Oda a la fabrica abandonada" izenburukua emongo dau. Bixak Portalean izango dira, 19.00etan eta, oñ arteko moduan, sarrerria libria izango da.

Bestalde, Erb Mon artistak eta Harkaitz Canok alkarlanian Txontako hormetan graffiti literarixuak egitteko proiektuaz idatzi dau Canok bere blogian, "Hormarrazketa" izenburukuan. Proiektuan parte



hartzeko aukeria "idazle bateri gitxittan emoten jakon lujo" modura definiduta hasten daben artikuluan, literatura Txonta auzoko hormetan, graffitixak eginda idaztiaren esperientzixaren gaiñeko gogoretak jaso dittu idazliak.



Enpresia aldatuta be, lan baldintzak ez dira aldatuko. SILBIA

Garbitzailliak udalarekin ados

Oñ arteko kontratuan zittuen baldintzak okerrera egingo ebela ikusitta aurreko astian protestatzen hasi ziran garbitzailliak udalarekin ados ipintzia lortu dabe eta, tramitatzen diharduen aldaketak indarrrian sartziarekin batera, ikastetxe eta Haurreskola publikuak garbitzen dittuen andrak oñ arteko lanordutegixari eutsiko detse, zerbi-

tzuaeren arduria dakan enpresia aldatu daben arren. Agindu detsenez, aurreko urtiaren amaiera arte Uni2 enpresarekin zittuen lan baldintzak ez dira kanbixauko, aurrerantzian Masterclin enpresa barrixandako jardungo daben arren. Ados ipintziarekin batera, garbitzailliak bertan behera laga dittue eguneroko alkarretaraziak.



Erabagitzeko eskubidiak garrantzi larregi daka politikuen esku lagatzeko. Holan diño Angel Oiarbidek "Gazta zati bat" dokumentaliam eta, ideia horeri helduta, erabagitzeko eskubidia herritarrak gure gaiñ hartziaren alde biharrian hasitta dago Gure Esku Dago herri ekimena. Euskal Herrixan bizi dan gatazka politikua iñoiz konponduko bada, herritarrak gure etorkizunaren gaiñeko erabagixa hartzeko eskubidia dakagula aldarrikatzen dabe Euskal Herri guztian, herririk herri ekimenaren harira sortzen juan diran batzordiak, tartian gure herrixan San Blas Zati Bat izenarekin sortutakuak.

TERESA AGIRREAZALDEGI (Gure Esku Dago):

"Alderdixak auzixari heltzen ez detsela ikusitta, arduria geuk hartu biharko dogu"

- Nundik nora sortu dozue Gure Esku Dago / San Blas Zati Bat taldia?

Oiñ dala bi-hiru hillebete, uda ostianedo hasi giñan batzen, aldameneko herrixetan be ekimena sustatzen hasitta eguzela ikusitta. Ikuspegi eta ideia zabala dakagun batzuk gaixari heldu eta holan hasi giñan batzen, Eibarren be taldia sortu eta ekimena sustatzeko asmuakin. Denporia aurrera doia eta gaixa mahai gaiñera etartzia biharrezkua dala pentsatzen dogu. Alderdixak ezer egitten ez dabenez, auzixari modu zuzenian ez detsenez heltzen, geuk hartu dogu horren arduria geure gain.

- Eta zeintzuk osatzen dozue?

Taldekidet gehixenak ez dakagu lotura zuzenik politikarekin. Bakotxa toki batetik gatzoz, pentsatzeko modu diferentia dakagu, adin tarte zabala hartzen dogu... Izan be, ekimena sortu zan momentutik, hasieratik aniztasuna billatu dogu herriko batzordiak eratzeko orduan. Ekimenak danak azpizan hartzeko moduko aterkiña izan nahi dau, danendako tokixa dago.

- Aurretik batzen hasitta zagozie, baiña ekimena herritarraren artian zabaltzeko ekitaldixekin batez be oiñ hasi zarie, ezta?

Oiñ arte, hillebete honetan hainbat jarduera garatzen gabiz: aurreko asteburuan ekimenari atxikimendua emon detsen herriko hainbat lagun ezagunek talde argazki-

xa etara eben Untzagan eta aste honetan bertan "Gazta zati bat" dokumentalaren emanaldixa egin da Portalean. Datorren astian, eguaztenian, 19.00etan ekimenaren barri emoteko hitzaldixa emongo dabe Portalean eta 22rako, barriz, beste herri batzuetan egindakuaren bidetik, Eibarren be ahalik eta jende gehixen batu nahi dogu Untzagan, 13.00ian, danak alkarrekin ekimenaren irudixa dan esku modukua osatu eta goittik erretratua etartzeko. Bixen bittartian, furgoneta bat herririk herri ibilliko da eskualdian, jendiak ekimenaren harira antolatutakuen barri emoten.

Hiru ideia eta norabide bakarra

Gure Esku Ekimenak hiru ideia nagusiri segitzen dets: naziñua gara; erabagitzeko eskubidia daukagu; eta etorkizuna herri honetako herritarraren esku dago. Ekimena 2013ko ekaiñaren 8xan abiatu zan. Herririk herri, sektorerik sektore eta naziñoz naziñoako aktibaziñuaren ondorioz, 2014ko udazkenian topaketa jendetsu bat deittu nahi dogu. Ekimen nagusi bat egingo da Gure Esku Dago dinamikari jarraituta: 2014ko ekaiñaren 8xan Durango eta Iruñea alkartuko dittuan giza-katia gauzatzia, 123 kilometroko luzeerian, 50.000 laguneren artian osatutakua.

- Herritarrak ekimenari atxikimendua emoteko siñadurak batzen diharduzue. Zelan emon leike atxikimendua?

Jarduerak egitten goiazan neurrixan, aurreko asteburuan lez kalian mahaixa ipiñiko dogu, nahi daben jendiak manifestuari atxikimendua egitteko aukeria euki deixan. Hortik aparte, astero astelehenetan billeria egitten dogu Kulturalian, lehelengo pisuan, 19.00etatik 20.00etara. Gurekin kontaktuan ipiñi nahi dabenak, billera egunian zuzenian etorri eta gurekin berba egitteko aukeria daka.

- Ekaiñaren 8xan egingo da jarduera nagusiña, Durango eta Iruñea bittarteko giza-katia. Honezker hori osatzeko metruak saltzen hasi zarie, zer egin bihar dau erosi nahi dabenak?

Metruak bost euro balixo dau eta erosten dabenari trukian kit modukua emoten jako, guardasol, zapi eta bestelakuekin, egunian bertan erabiltzeko. Katian parte hartu nahi dabenak aukera bi dakaz: Eibarko lantaldiarekin kontaktuan ipiñi (billera egunen batian bertara agertuta) eta egun horretan nun ipiñi biharko dan esango detsagu edo, bestela, interneten gureeskudago.net webgunian sartu eta, eskatzen dittuen datuak beteta, bakotxaren eskualdia zein dan kontaktuan hartuta, ibilbideko toki batzuk proposatuko detssez, berak bat aukeratzeko.

Zamakolatarrak Euskariansekin Dublinen



Euskal Herriko errugbi selekzioak Irlandara egindako irteeran hartu dute parte Eibar Hierros Anetzeko Julen eta Kepa Zamakolak, Jose Miguel Galdos eta Peio Alvarez teknikarien aginduetara. Eibarko aurrelariekin batera, Angleteko lau jokalar, S.Jean de Luzeko eta Hendayaiseko hiruna eta Gernika, Uribealdea, Hernani, Muguerre, Ziburu, Mauleon, Bayonne, At. Madril eta Ayala Cisneros-eko bana izan dira Irlandan, Old Belvedereko biga-



Harrobiko gazteek errugbiaren sekretuetan sakontzen dihardute.

ren taldeari 0-88 irabazteko eta Sei Nazioetako Irlanda-Gales partidua Dublinen zuzenean ikusteko.

Bestalde, zapatuan jokaturako 14 urtetik beherakoen arteko partiduan, Hierros Ane-

txekoek amore eman behar izan zuten Atletico San Sebastianen aurrean (25-16). Markel Lomanak, Oierrek eta Curielek lortu zituzten eibartarren entseguak eta baita gazutu ere.

Podium bat baino gehiago igeriketako Gipuzkoako txapelketan



Urbat Urkotronik-eko igerilariak hainbat domina ekarri zituzten Azpeitian jokaturako probintziako txapelketan, tartean Nora Varelak 100 bultzean eta eibartarrekin entrenatzen duen Ion Mujika bergararrak 100 estilo eta 200 libreetan lortutako urrezkoak. Infantil mailan ere, lehen postua eskuratu zuen Eibarko tal-

deak, 4x100 estiloetako proban: Maite Barruetabeña, Anie Erkiaga, Lucia Basurko eta Kattalin Izagirrek osatu zuten laukotea. Nekane Tejedor, Ioar Urkiri, Egoitz Blanco eta Aitzol Arrillaga ere podiumera igo zuten, bitan bakoitza. Urbatekoen hurrengo erronka Iruñean izango da, Euskal Herriko txapelketan.

Zeinek ezarri joarea Somos Eibarri eskubaloian?

Gero eta "katuago" dabilta eta ez dago itzala egingo dion "arratoirik" azken jardunaldietan Fernando Fernandez mutilei. Eta eibartarrak eroso jarraitzen dute euren mailako lidergoan, bigarrenari bost puntuko alde aterata. Azken jardunaldian Tolosa gaititu zuten 28-33, batez ere bigarren zatian egindako lan bikainari



Talde-indarra da nagusi Somosen.

esker, atsedenaldira etxekoan aldeko 14-12koarekin erretiratu baitziren. Bihar, 19.00-etan hasita, Ipuruan Kantabriako Corrales laugarren sailkatua hartuko dute, multzoko bigarren goleatzaile-rik handiena.



Urrezko bi eta zilarrezkoa Gipuzkoako judo txapelketan

Nekane Muguruzak (70 kilotik behera) eta Iker Martinezek (73tik behera) kadete mailako txapela jantzi zuten domekan Hernaniko kiroldegian eta Julen Ramonek zilarrezko domina lortu zuen 90 kilotik beherakoan artean. Hirurak ere kadeteen mailako Euskadiko

txapelketan parte hartzeko sailkatu dira.

Bezperan Muguruzak parte hartu zuen, Eneko Lores junioarrarekin batera, Asturiasen jokaturako den Espainiako txapelketarako proba moduan antolatutako kata lehiaketan.



Guztion ahalegina beharko dela dio Alex Aranzabalek kapital zabalkuntzaren aurrean

Aurretik ere jakinaren gainean egonda ere, orain data ezarri zaio Eibar Foball Taldeak egin beharreko kapital zabalkuntzari. Abuztuaren 6rako 1'7 milioi eurotan handitu beharko du bere kapital soziala: gaur egungo akzioen balorea 422.253 eurokoa da eta aipatutako egunerako 2.146.525 euroko kapitala izan beharko du. Horren aurrean, klubeko zuzendaritza buru-belarri sartu da prozesuan eta han-hemenka dihardu hariak mugitzen eta beharrezko ateak jotzen. Alex Aranzabal presidenteak dioenez, "noiz-behinka borrokatzea dagokigu. Legea hor dago, baina bere espirituaren kontra egiten du gure moduko talde bati erasotzen dionean. Seriotasuna erakutsi dugunean, zorrik gabe eta ekonomikoki indartsu gaudela erakutsiz eta estatu osoan eredutzat hartzen gaituztenean".

Denboraldia hasi aurretik mehatxua buru gainean zuten, "baina orain arte extraofiziala zena ofiziala bihurtu da". Hemendik aurrera, lehenengo urratsa bazkideen batzarra deitzea izango da: "Legezko tramiteak bete behar ditugu eta, deialdia eginda 30 egun pasatu behar direnez, martxoaren amaierarako aurreikusten dut", dio Aranzabalek. Kapital zabalkuntzaren faseetan, "lehenengoan gaur egungo akziodunek hartuko lukete parte, gero beste bazkideek eta, azkenekoan, beste-

lako jende guztiak. Argi dago beharko dugula gaur egungoen laguntza eta, baita, beste batzurena ere". Argi dute euren asmoa gaur egungo bideari jarraitzea dela: "Ezin dugu kluba laga kanpotik etorri daitekeen inbertsore ahalguztidun baten eskuetan. Eibar FT eibartarrona izan behar da, gipuzkoarrona, euskaldunona azken batean".

Klubaren administrazio kontseilua adoretu dago erronkaren aurrean: "Erakundearen aldeko jarrera nabaritu dugu, badira kanpotik deitu diguten enpresak, baita operazioa finantzatzeko aukerak, foballari-ohien bertasuna igarri dugu, bazkideena... Eibarko herriak eta masa sozialak aurrera egingo du". Aste honetan bertan Gipuzkoako PSE-EEK ebazpen proposamena eramango du Biltzar Nagusietara Kirol Goren Kontseiluak karga hori kendu edo arindu diezaion klubari eta EAJ-k Kiroletako Estatu-idazkariaren agerraldia eskatu zuen martitzenean Kongresuan.

Noiz egin zen Eibar FT Kirol Sozietate Anonimo? 1992an, Juan Luis Mardaras presidente zela. **Zergatik geratu ziren kanpo Athletic, Osasuna, Bartzeloa eta Real Madril?** Aurreko bost urteetan zorrik ez zutelako izan. **Zergatik gaurkotu behar du kopuru hori orain Eibarrek?** 2. B mailan bi denboraldi baino gehiago egin duelako. **Zein kiroletan dago indarrean lege hori?** Foballean (1. eta 2. maila) eta saskibaloian (ACB). **Gaur egungo 3.000 bazkideen artean banatuta, zenbat aportatu beharko luke bakoitzak?** 580 euro. **Akzio bat duenak zenbat berri erosi ditzake?** Hasieran, lau. Akzio nominalak 60 euroko balioa du. **Legea indarrean ipini zenean, zorra 172 milioi eurokoa zen; orain 5.000 milioitik gorakoa da.**

berriak

AIMAR ASTELEENAN

Pilota profesionala berriz itzuliko da domekan Katedralera. Oraingoan, gainera, Aimar Olaizola txapeliduna izango da partidua nagusian, Aretxabaletak lagunduta, Berasaluze II.ari eta Albisuri aurre eginez binakako txapelketaren norgehiagokan. Jaialdia hasteko, Retegi Bi-Larrinaga eta Apezetxea-Pascual bikoteak izango dira, nor baino nor. Amaitzeko, berriz, Tainta-Iza eta Victor-Untoria bikoteen artekoa jokatu da.

ERRUGBIA

Hierros Anetek bihar 16.30etan Oviedo Unben hartuko duen partiduan orain dela gutxi hil den Enrique Orbea taldeko medikua omenduko du. Nesken taldeak, bestalde, domekan Durangoren aurka jokatu da eguerdiko 12.00etan.

FOBALLA

Eibar FT-k lidergoari eutsi nahiko dio bihar 18.00etan Ipuruan Sabadellen aurka jokatu beharreko partiduan. Klubak Matias Ibañez atezain argentinarra fitxatu du denboraldia amaitu arte eta Capak beste bi urterako berri du kontratua.



● tartak
● enkarguak
● etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

EMAKUME ETA GIZON
MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33



ZULOAGATARREN, 7



Pello Osoro garailea helmugaratzen.

Ermuko duatloia Pello Osororentzat

Azken bihurgunean jausi arren, jaiki eta segundo bategatik garaipen izugarria lortu zuen Deltecoko ordezkariak. Esprint itxian erabaki zen, beraz, Ermuko Duatloiko bosgarren edizioa eta Pello Osorok ordubete, hiru minutu eta 41 segundo behar izan zituen proba irabazteko: segundo batera sartu zen Oier Ariz-

nabarreta eta zazpita Raul Amatriain. Txomin (irabazlearen anaia) 23.a izan zen, junior onena izateaz aparte eta gure herriko beste seik amaitu zuten proba: Andoni Mayo (49.a), Roberto Gartzia (55), Pablo Arakistain (57), Joseba Ortega (77), Juanjo Romero (78) eta Ibon Romero (114).

Herriko xakelariak nagusi Billabonaren aurka

Emaitza onak lortu zituzten xakeko Klub Deportiboko bi taldeek. Billabonako ordezkariak irabaziz. Maila goreneko taldeak 2'5-1'5 garaitu zuen Billabona (Julen Garro eta Alex Aranzabal nagusi eta Ricardo Bastidaren berdinketa) eta bigarren mailakoak 4-0 irabazi zion Billabona C-ri (Jon Arana, Xabier Beorlegi, Emilio Jose Freire eta Jose Antonio Garriko, laurak irabazle). Oraingo asteburuan bidaiari izango dira gure herriko xakelariak: maila gorenekoak Hondarribian izango dira eta 2. mailakoak Legazpian.



13 gimnasta izan ziren Bergaran

Zapatuan Bergaran jokatuako gimnasia erritmikoko Gipuzkoako txapelketako 1. fasean, Ipuruako alebin eta jubenil mailako taldeak 3. postuetan sailkatu ziren eta kadeteena laugarrena izan zen. Maila indibidualean, gainera, hainbat lehen postu eskuratu zituzten eibartarrek: Graxi Arregik jubenil B mailan eta Miren San Martinek kadete B-n. Bihar B lehiaketa jokatu dute alebin eta infantil mailakoek eta erakustaldia egingo dute benjamin mailakoek, denek ere Arrasaten: Tania Nagornaia eta Susana Prietok 28 gimnasta eramango dituzte.

Atleta gazteenak ezin hobeto

Eibarko alebin mailako atletak bikain erantzun zuten Gipuzkoako kros txapelketan. Horrela, Gaizka Cortesek Gipuzkoako txapela jantzi zuen eta, horrez gain,



Iturburu onena izan zen ikastetxeen artean. Kluben arteko sailkapenean, berriz, Eibarko Klub Deportiboak 2. postua eskuratu zuen.

Deporren irteera sagardotegira

Hilaren 22rako, hurrengo zapatarako, antolatu du Klub Deportiboko mendi taldeak sagardotegira irteera. Hori bai, aurretik mendi buelta egingo dute, 18 kilometro ingurukoa: Alztotik abiatuta, 801 metroko Otsabio mendira igoko dute eta Betelun amaituko dute ibilbidea. Afarria Alegiako Isastegi sagardotegian izango da. Irteera eta sagardotegiaren prezioa 35 eurokoa izango da eta izena Deporren eman daiteke (martitzen eta egunean, 19.30-20.30). Irteera goizeko 09.00etan izango da.



Eskubide Sozialen Kartia Untzagara etarako dabe bixar

Aurreko eguztenian presentau eben Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren inguruan Eibarren biharrian dagan taldea, Kulturalian egiñ eben agerraldixan. Euskal Herriko beste herri askotan lez, eskubide sozialen kartiaren zirriborrua oiñari modura hartuta, bertan idatzittakue-ri ekarpenak egitteko prozesuan buru-belari sartuta dabiz egunotan eta bixar, goizeko 11.00etatik aurrera, zirriborruaren puntu inportantienak kalera etarako ditue, Untzaga plazan panelak ipiñitta. Bixarkuak helburu bi dakaz: jendiak Eskubide Sozialen Kartia eta zirriborruari oiñ arte egindako ekarpenak ezagutzia eta, horrekin batera, nahi dabenak bere ekarpenak egitteko aukeria eskintzia.

Eskubide zerrenda luzia jasotzen dau kartiak eta herritarron bizitzako esparru guztiak hartzen ditte kontuan: biharriari lotutako eskubidiak, elikadurari buruzkuak, hizkuntzaren inguruak, etxebizitza, parte-hartzia, kultura, andrazkuak, aniztasuna... Uda aurretik ekin zetsen Euskal Herriko Eskubide Sozialen kartia idaztiari eta oiñ kartiaren zirriborrua herrixetako batzordien esku dago, hamabi bloketan banatuta dagan borradoriaren inguruan biharrian jardun deiken. Eskubide Sozia-



ZERGAITTIK?

- Botere ekonomikuak, gobernuak lagunduta, egin nahi dabena egitteko daken modu bakarria gizartiari erabagixetan parte hartzia ukatzia dalako. Horregaittik kartia batez be prozesu parte-hartzailia izan bihar da.

- Euskal gizartiak zelako etorkizuna nahi daben eta oiñarrixan egongo diran eskubide ukaeziñak zeintzuk izan bihar diran erabagi bihar dau.

- Beraz, Euskal Herriko Eskubide Sozialen kartia ez da papel hutsa, eredu ekonomiko eta sozial barrixa eraikitzeo funtsezko baliabidia baiño.

len Kartia egitteko asmuaren barri emoten Eibarren, Hezkuntza Esparruan oin dala urtebete egon ziran eta, hori jakinda, oso perfil zabala dakan lantaldia eratu eben Eibarren. Azaldu deskuenez, "Euskal Herri maillan idatzittako zirriborrua herrixetako batzordietara zabaldu dabe, guk irakorri eta bertan jasotakuari zoezer gehittu, aldatu edo dana dalakuari egitteko aukeria eukitzeko. Eta horretan ibilli gara biharrian azken astiotan. Zirriborrua bloke diferentietan banatuta daguez, guk be lantalde diferentia antolatu ditugu, talde bakotzak bloke bana lantze-

ko. Bixar Untzagan ipiñiko dittugun paneletan, zirriborruak jasotako blokien barri emotiarekin batera, gure ekarpenak irakortzeko aukeria eukiko dau jendiak eta, jakiña, irakorritakuari zoezer gehitzia nahi dabenak horretarako aukeria eukiko dau bertatik bertara".

Ekitaldixa edarto girotuta egongo da, gaiñera: Eibarko Kantuzaliak txistorra pintuak saltzen egongo dira, 12.00xetatik aurrera eta tarteka kantaren bat edo beste eskinduko dabela aurreratu deskue. Horregaittik, herritar guztiak animau nahi ditue bixar Untzagara gerturatu eta parte hartzera. Bestela be, baten bat zirriborruaren inguruan biharra egittera animau ezkeru, Eibarko taldiarekin kontaktuan ipiñi leike eibarkokartasoziala@gmail.com helbidera idatzitta.

Herri maillan zirriborruari ekarpenak egitteko fase hori amaitzian, atzera be Euskal Herri maillara zabalduko dabe zirriborrua, ekarpen guztiakin batera, han lantzeko. Eta behin-betiko testua adostu baiño lehen, barri herri maillako batzordietako kidien esku lagako dabe kartia. Azken pausua, Eskubide Sozialen Kartia ahalik eta parlamentu gehixenetara helaratzia litzake, gaixari eurak heltzeko.

Iradi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Orain dela hamabi urte jarri zuen martxan ...eta kitto! Euskara Elkartek Berbetan mintzapraktika egitasmoa. Azkeneko lau ikasturteetan herriko umeen gurasoek Gurasoak Berbetan azpi atalean jarduteko aukera dute, eta iazko proba pilotoaren ondoren, Eibarko dendari guztiei ere egingo zaie eskaintza.

Eibarren, euskara ikasleen aldetik, euskara praktikatzeko zegoen demanda ikusirik jarri zuen abian ...eta kitto!-k Berbetan mintzapraktika programa. Izan ere, euskara ikasleek ingurune euskaldunik ez badute, nekez jardungo dute euskaraz. Berbetan aukera hori eskaintzeko sortu zen beraz: euskara ikasle edo euren euskara gaitasuna hobetu nahi dutenei, giro lasai eta naturalean, euskaraz berba egiteko lagunak eta lekua eskaintzeko, hain zuzen. ...eta kitto!tik diotenez, "gure egitasmoa euskaltegien jardunaren osagarria da, euskara ikasteko euskaltegiak daude, baina ikasitakoa praktikan jarri edo galdutakoa berreskuratze-ko aukera ezin hobea dira mintzapraktika taldeak. Lotsa eta konplexuak gainditu, euskeraz berba egiteko ohitura hartu eta euskal harreman sarea handitzeko aukera eskaintzen die".



Etxeko artista gazteak euren eskulanekin pozik.

Aurreko barixakuan, Gurasoak Berbetan egitasmoko parte-hartzaileen seme-alabentzat eskulan

tailerra izan genuen ...eta kitto! Euskara Elkartean. Ihintza andereñoaren laguntzarekin, material gutxiarekin eta oso modu errazean eskulan politikak egin zituzten bertan izan ziren umeek. Ikasturtean zehar hainbat ekintza osagarri antolatzen ditu ...eta kitto!-k Gurasoak Berbetan-eko kideentzat, eta barixakuko tailerraren ondotik etorriko dira beste hainbat. Izan ere, martxotik aurrera, "Barixakuak jolasian" atala jarriko da martxan, eta hilabeteko lehen barixakuetan, hainbat ekitaldi antolatuko dira ume zein gurasoentzat. Martxoaren 7an eta apirilaren 4an gurasoek eta seme-alabek elkarrekin egiteko moduko tailerrak antolatuko dira ...eta kitto!-n bertan.



EUSKARAK gehiago saltzen duelako



Dendariantzat espezifikoa

Bestalde, euren seme-alabekin euskaraz jolastu, etxeko lanak egin edota berba egiteko orduan zailtasunak zituztelako hainbat gurasoren aldetik jasotako kezka kontutan harturik, Gurasoak Berbetan azpi atala jaio zen orain dela lau urte. Eta iaz, Elkartetik diotenez, "herriko dendariekin

ahalegina egitea pentsatu genuen, proba piloto moduan. Sektore garrantzitsua eta estrategikoa dela pentsatzen dugu eta horregatik, aurten, herriko komertzio guztietan egingo dugu zabalkundea". Eibar zerbitzu hiria bihurtzen ari da eta gero eta jende gehiago etortzen da inguruko herrietatik ere erosketak egitera. Dendariak

IPUIN KONTALARIA UMEENTZAT



...eta kitto!-ko gonbidapenak banatuko ditu ipuin kontalaria ikusteko.

Ipuin kontalaria ikusteko gonbidapenak

Datorren otsailaren 23an, domeka, eta urteroko ohiturari jarraituz, ipuin kontalari saioa izango dugu Portaleko areto nagusian goizeko 11.30etatik aurrera. Itziar Gamero ipuin kontalariak eskainiko duen ikuskizunera joateko ezinbesteko baldintza da Gurasoak Berbetan-eko parte-hartzailea izatea, baina ...eta kitto!-k gonbidapenak banatuko ditu Elkarteko bazkideen artean. Datorren astelehenean hasita, otsailak 17, eta barixakura arte, otsailak 21, ...eta kitto!tik pasa daitezke bazkideak gonbidapenak jasotzera. Bazkide bakoitzak, asko jota, lau sarrera hartu ahal izango ditu. 75 gonbidapen inguru daude eta agortu arte banatuko dira.

Arrate Valenciaga

DENDARIAK BERBETAN-EKO KIDEA

Arrate Valenciagak igaz eman zeban izena Dendariak Berbetan-eko proba pilotuan eta aurten be parte hartzeko prest agertu da. Euren euskera gaitasuna hobetzia nahi dabeneri zuzenduta dago, baina Arrate moduko euskaldunen parte hartzia ixa ezinbestekua da taldiak osatzerako orduan.

- Zer begittantzen jatzu horrelako mintzapraktika programia dendarixeri be eskintzia?

Oso ondo, halako ekimenak beti ikusten ditudut ondo. Jentiarri konfiantzia emoten detsa euskeraz atenditziak, gertutasuna emoten detse. Eskertu egitten dabe tratua euskeraz jasotzia.

- Zergaittik emon zenduan izena?

Gauza politta dala pentsatzen dot, jente desbardiñakin alkartu eta beste kontu batzuk

entzuten dozuz, beste gai batzuk. Norberan kontuekin apur bat apurtzeko balixo dau.

- Zelan animauko zenduke dendarixak parte hartzera?

Hainbeste gauza egitten ditugu dendarixok urtian zihar... Honi gauza on eder bat ikusten detsat, oso agra-dezidua dala. Gauza gitxi dagoz hain gitxi emonda horrenbeste emoten dabenak. Asko kompensatzen dau. Gainera gauza alaixa da, pozgarrixa, "txipa" aldatzeko baliogarrixa.

- Herritarrekin harreman zuzena dakazu. Zelan ikusten dozu euskeriaren erabilleria Eibarren?

Nere sasoiari oso gitxi entzuten zan kalia eta pentsatzen neban galdu egingo zala. Gaur egun poztasun haundia emoten desta kalia entzutia, batez be gaztien artian entzuten dotenian. Pentsatzen neban Eibarren ez zala euskera berreskuratuko. Holako programak laguntzen dabe horretan.



- Eta dendan zelan ikusten dozu euskeriaren erabilleria?

Bezeruak be erabiltzen dabe, gu euskeraz hasi ezkeru, euskaldunak normalian euskeraz jarraitzen dabe eta eurak be eskertu egitten dabe harrerria euskeraz egittia.

egoeraz konziente dira eta zerbitzua euskaraz emateak duen garrantziaz ohartuta daude. "Inork baino hobeto dakite zein garrantzitsua den detaile guztiak zaintzea, kalitatea bane. Bezeroak eskatzen duen hizkuntzan harrera egiteak zerbitzuaren kalitateari plusa ematen dio eta horregatik pentsatu genuen eurentzat ere interesgarria izango zela".



Ekintza osagarrien artean, argazkian Donostiara egindako irteera. SILBIA HERNANDEZ

Euren beharretara egokitua

Funtzionamendua Berbetan orokorraren berbera izango da, hau da, euskaldunak eta euskara gaitasuna hobetu nahi duten dendariak taldetxoetan elkartuko dira, astean behin, ordubetez, eurek nahi duten egun, leku eta orduan. "Denda ixten dutenean, eguerdian zein arratsaldean, izan daiteke momentu ona taldean elkartzeko. Kasu honetan ere, parte hartzea doan da". Aste honetan banatu dituzte esku-orriak Eibar-

ko komertzio guztietan, eta erantzunaren zain, datozen asteotan taldeak osatzea espero dute Euskara Elkartekoek.

Goraka doan mugimendua

Abian jarri zenetik, indar handia hartu du Berbetan-ek. 18 laguneko taldetik gaur egungo ia 100 lagunera zabaldu da progra-

ma, 22 taldetan banaturik. Elkartetik diotenez, "Euskal Herri osoan indar handia hartzen ari den mugimendua da. 6.000 berbalagun inguruk dihardute eta Eibarren ere gauza bera gertatzen ari da. Urte-tik urtera berbalagun kopuruak gora egiten dihardu, funtzionatzen duen seinale, izan ere, berbalagunek eurek esaten digute, taldeetan dihardutenetik euskeraz berba egiteko jarria eta ohitura hartu eta lotsa alde batera lagatzea lortu dutela".

Ekintza osagarriak

Astean behin taldeetan elkartzeaz gainera, bestelako ekintza osagarriak ere eskaintzen zaizkie berbalagunei, besteak beste hitzaldiak, ikastaroak, irteerak... Programako dinamizatzaileen berbetan, "horrek, gainera, berbalagunen harreman sarea zabaltzen laguntzen du. Euren egoeran dauden pertsonak ezagutzen dituzte eta beraz, euskeraz berba egiteko sarea haunditu egiten zaie". Hurrengo ekitaldia Gasteizera egingo duten irteera izango da, bertako katedrala bisitatzera.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira irasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 fax 943 202564



Jorge Imaz Bolinaga

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

Bidebarrieta, 6 - 1. ezk.
Tlf. 943 53 03 03

imazjorge@hotmail.com

Eguaztenean Untzagan egin zen Ikasenpresa azokan Iluminarte, eskuz egindako kandelak artistikoen inguruko enpresa proiektua aurkeztu zuten Alejandro San Jose eta Mireia Fuentes gazteek. Uni Eibar-Ermua ikastetxeko beste hiru ikaskiderekin batera sortutako proiektua jendaurrean aurkezteaz gain, azokan eurek egindako kandelak saltzeko aukera izan zuten.

- Iluminarte izeneko enpresa proiektua nondik nora sortu duzue?

Klasean egin beharrekoen artean, kooperatiba bat eratzeari eskatzen zaigu eta, gure enpresa nolakoa izan zitekeen pentsatzen hasita, kandelak saltzeko proiektua lantzea pentsatu genuen taldekideok. Eskuz egindako kandelak dira eta, gainera, birziklapenari arreta berezia eskaini diogu. Horrela, atun-latak, kopak, Nespresso kapsulak, paperezko elementuak eta beste hainbat erabilia, beste inon saltzen ez dituzten kandelak personalizatuak sortzen eta saltzen ditugu.

- Zergatik egin duzue birziklapenaren aldeko apustua?

Gaur egun, ingurumenari lotutako gaiek gero eta garrantzi handiagoa daukatela pentsatzen dugu, kontuan hartzeko modukoa da eta, gure ustez, birziklapenak enpresari zein produktuari balio erantsia ematen die. Ezertan hasi baino lehen, kompetenziaren eskaintza begiratzen ibili ginen, guk eurek saltzen zituzten kandelatik bereiziko ziren beste batzuk sortu eta saltzeko.

- Zuen enpresaren bitartez sal-

tzen dituzuen kandelak zeuk egiten dituzue, ezta? Honetan hasi aurretik horrelakoetan esperientziarik bazenuten?

Ez, gutariko inork ez zuen aurretik kandelarik egiten, baina interneten dauden bideo eta bestelakoak bilatu eta horiei begira ikasten joan gara.

- Azokan jendeari zuzenean saltzen zabilzate, baina bestela, zuen kandelak erosteko nora jo daiteke?

Bloga daukagu (iluminarte-scoop.blogspot.com) eta Twitterren ere bagaude (@iluminartescoop). Nahi duenak gure blogean sartu eta zelako kandelak egiten ditugun ikus dezake.

- Eta orain arte nolako harrera izan dute kandelak?

Ba jendeak oso ondo hartu ditu, Gabonen aurretik mordoak saldu genituen eta erosi zutenei inkesta pasatu genien. Erantzunak irakurrita, kandelak erosi dituztenak oso pozik daude. Daukagun eskaintzaren barruan, bereziki ondo saldu dugu "Oteiza" izenekoak. Bezeroak nahi duen kolorean hainbat lauki bata bestearen gainean ipinita egindako kandelak da, 18-22 orduko iraupena dauka eta 1'95 euro balio du.



Alejandro San Jose eta Mireia Fuentes (ILUMINARTE)

"Beste inon saltzen ez diren kandelak egiten ditugu"

Aire berriak!
Estaziño, 4
943 254776
Khôl Estilistak

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesezik euskarara.
ZERBITZUA
 elkarte@etakitto.com

Enpresa sortzen ikasi... eta gehiago

Eguaztenean Euskadi oso-tik etorritako ikasleek euren enpresa proiektuak aurkeztu zituzten Ikasenpresa azokan, Untzagako karpa barruan eta udaletxeko arkupeetan. Lanbide Heziketako 40 ikastetxetako 700 bat ikasle batu zituen azokak. Taldeka ipini zituzten postuetan orotariko 130 enpresa proiektu eta horietatik sortutako produktuak bertatik bertara ikusi eta kasu batzuetan erosteko aukera izan zuen jendeak. Izan ere, ikasleek buruari ondo eragin diote nolako enpresa sortu nahi zuten pentsatzeko orduan. Eta emaitza bikaina izan dela ikusteko, nahikoa zen azokan buelta bat eman eta bertan aurkeztutako produktu eta zerbitzu eskaintza zabala ikustea: gozogintza, artisautza, informatika, argazkilaritza, ekitaldien antolaketa, automozioa, mekanizatua, arosgintza, botikak, ipuinak... denetarik eskaini zuten Elgoibar, Gasteiz, Donostia, Bilbo, Markina Xemein, Durango, Muskiz, Zu-



40 ikastetxetik etorritako 1.500 ikasle inguru batu zituen eguezteneko azokak. Bertan Lanbide Heziketako ikasleek abiatutako enpresa proiektuak aurkeztu zituzten. SILBIA HERNANDEZ

marraga, Zarautz, Andoain, Arrasate, Oñati, Urnieta, Santurtzi eta Tolosako ikastetxetako ikasleek. Eta eurekin batera, jakina, Eibarko ikasleak ere egon ziren azokan: Uni Eibar-Ermua BHI-ko eta Armeria Eskolako talde banak hartu zuen azokan.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza eta Kultura Sailak, Tknika Lanbide Heziketarako berrikuntza zentroak eta




Udalak antolatu dute aste honetan Eibarren egindako azokak. Aurreko edizioetan EJE izenarekin garatu den proiektu hau Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasleei zuzendutakoa da eta, programari esker, ikasleek enpresa berri bat sortzeko esperientzia zuzenean bizitzeko aukera daukate, ikasturtean zehar enpresa bat sortzeko eman beharreko pauso guztiak ematen dituzte-eta.

Azokan proiektuak banan-

banan aurkezteko tartea ere izan zuten ikasleek. Binaka, karpa barruko eszenatokira igo eta bakoitzaren negozio-idea jendaurrean defenditu behar izan zuten, Ikasenpresak ezarritako sei errekonozimenduak oinarritzat hartuta: merkatu-azterketa, salmenta-puntuak, negozio ideiak etorkizunean izan dezakeen bideragarritasuna... horiek eta beste batzuk izan dituzte kontutan ikasleek euren proiektuak aurrera eramateko orduan.





VICENTE IRIONDO (margolaria) "Pinturarekin beti lagunduta sentitzen da bat"

Batzuk akuarelan eginda, besteak arrautza tenplean. Bai paperean, eta baita oihalean ere: koloreei euren argitasun guztia erakutsiarazten die Vicente Iriondo eibartarrak. Koloretako marren paisaietan galdu eta hausnartu nahi duenak aukera du gaurtik martxoaren 2ra arte Topalekun ikusgai izango den erakusketan, geruzaz jositako lanekin.

- Zenbat urte margotzen hasi zinela? Asko aldatu zara, estilo ezberdinak landu dituzu?

Bizi guztia, 17 urterekin hasi bainintzen. Urte guzti horietan aldatetak izan dira; baina, estiloak ez du garrantzirik horretan, gehiago dute erabilitako teknikak eta materialak. Azken bi urteetan gehiago erreparatu diot ideia orokor bati, egiturak aztertzeari: bideek edo zuhaitzek dituzten egiturak, eskaintzen dizkiguten marrak, jarraikortasunezko lerroak... Hori nahi izan dut lortu pintura eta koloreak nahastuta.

- Zelako lanak erakutsiko dituzu Topalekuan?

Aipatutako testuinguruan murgilduko diren koadroak izango dira, koloreak eta marrak gidari izango dituztenak. Hiru-lau koadro errealista izango ditut... Azken aldiari gauza sinpleen alde egin dut nabarmen eta pigmentoak eta arrautzak erabiltzen ditut batez ere, akuarela asko. Orain bertan Debara noa, olatuak zelan osatzen diren erreparatzera.

- Matematikak ere integratzen dituzu zure lanetan?

Matematikak gustoko ditut, baita proportzioen edo ekuazioen mundu hori. Guztiak, dena dela, naturarekin du zerikusia, ikusitako hori deskribatzeko matematikak baliagarri izan badaitezke ere. Gutako bakoitzak hainbat talentu ditu; meriturik, gutako inork ere ez. Hori egokitu zaigu. Pinturarekin, gainera, beti lagunduta egoten naiz/gara: edozein detailerik so, adi.

- Zein teknika erabiltzen dituzu zure lanetan?

Normalean, denetarik: tenplea, arrautza, pigmentoak, akuarela... Oso gustokoa dut marrazkia. Oleoa, alderantziz, ez dut erabiltzen: disolbatzaile larregi nire gustorako. Baina teknikak ez du garrantzirik.

- Saltzeko asmorik baduzu? Eibarren apreziatzen ditugu erakusketok edo mundu nahiko itxia da?

Normalean ez dut askorik saltzen. Baina, jendea interesatuta badago, adostasunera iritsiko gara. Ikustera ere betiko jendea etorriko delakoan nago. Lehen beste kultura bat zegoen, erakusketak gehiagorekin: Kutxako aretoan, Udaletxean... Portalera ere gutxi dute ohitura joateko, eta erakusketak bikainak ekartzen dituzte.

- Bereziki gustatzen zaizun artistarik?

Mordoa; inguruko gehienak, esaterako. Murtziako Pedro Cano esaten badizut, esaterako, errespetua zor diegan beste asko kanpoan lagako nituzke.



ETBko kamerak ere izan ziren martitzenean Pascualek eta Aranburuk eskaintako ogi-dastaketan. SILBIA HERNANDEZ

Ogi dastaketa arrakastatsua

Leku guztiak beteta, 20 lagun izan ziren martitzenean ...eta kitto!-n antolatutako ogi dastaketa saioan. Artepan-eko Txema Pascualek eta Jantxo Aranburu eibartarrak ogia egiteko prozesua azaldu eta ogi moeta desberdinak dastatzeko aukera eskaini zuten. Bi ordu iraun zuen saioan ETBko kamerak ere izan ziren, Euskal Herria Zuzenean programak zuzeneko konexioa egin zuen-eta. Saioaren bideoa Eitb Nahieran ikusgai dago (www.eitb.tv/eu/bideoa/euskal-herria-zuzenean-helbidean, otsailaren 11ko saioa aukeratuta, 42. minutuan).



Datorren asteko barixakuan, otsailaren 21ean, 20.30etatik aurrera Vargas Blues Band zuzenean entzun eta ikusteko aukera izango da, taldeak bere lan berria ezagutzera emateko Coliseoan emango duen kontzertuan (sarrerak 10 eurotan salgai daude, antzokiko txarteldegian eta interneten). Javier Vargas gitarra-joleak gidatzen duen taldea Espainian gaur egun dagoen blues bandarik ezagunetakoa da eta hogei urte daramatza taula gainean. "Heavy City Blues" izenburuko disko berria orain arte kaleratutako guztien artean gogorrena da eta, jatorrizko hamar abestirekin batera, Everly Brothers taldearen "Love hurt" kantuen bertsioa ere batzen ditu.

Komedia beltza gaztetxean

Gaur 19.00etan ¡Katastrofen! antzerki taldeak "¿Que ha sido eso?" izenburuko antzezlan taularatuko du Eibarko gaztetxean. Leire Olaranek eta Jone Garciak zuzendu eta antzetzuko duten lanak ordubete inguru iraungo du eta konpainiaren laugarren ikuskizuna da. Hilotzak eta bizirik irautea lortu dutenak protagonistatzat dituen zientzia-fikzioko komedia honetan umore beltz eta zentzugabekoa da nagusi.



Zarzuclaren antologiarako sarrerak

Martxoaren 7an, 20.30etan Coliseo antzokian egingo den **Antologia de la Zarzuela ikusteko sarrerak salgai** daude astelehenaz geroztik. Udaleko Kultura sailak eta Ozenki elkarteak antolatutako ikuskizunak zarzuela eta opera erreperitorio zabala batuko ditu taula gainean eta, horretarako, Espainia mailan oso ezagunak diren solistekin batera Sostoa abesbatzak eta Donostiako Sotto Voce soka-orkestrak jardungo dute. Emanaldian parte hartuko duten bakarlarien artean, besteak beste, Bartzelonako Liceoan berriki egindako kantu lehiaketa irabazi duen Miren Urbieta sopranoa, Helena Orcoyen soprano tolosarra, Javier Agulló teno-

rea eta Andres del Pino baritonoa daude. Sostoa abesbatzak, bestalde, bakarlarietara lagunduko die abesti batzuetan eta beste batzuk, berriz, abesbatzak bakarrik eskainiko ditu. Denek elkarrekin zarzuela ezagunetako abesti sorta zabala eta opera-aria batzuk eskainiko dituzte. Ordu bi inguru iraungo duen emanaldia Donostiko Lirica Sassibileko zuzendaria den Josean Garciak zuzenduko du. Emanaldirako sarrerak 25 eurotan eros daitezke, zuzenean Coliseoko txarteldegira joanda (astelehenetan 19.00etatik 20.00etara eta barixakuetan 21.00etatik 22.00etara) edo interneten, Kutxabank-en webgunean.



Emanaldirako sarrerak 25 eurotan eros daitezke, zuzenean Coliseoan edo Kutxabank-en web-ean.

Koko-dantzarako entsegu irekia

Aratosteak baino egun batzuk lehenago, otsailaren 22an ailegatuko zaizkigu koko-dantzak, Kezka dantza taldearen eskutik. Betiko moduan, egun osoan baserrikeri baserri eskean eta dantzan jardun eta gero, iluntzean herrira jaitsiko dira kalejiran ibiltzeko. Hori dela eta, iluntzeko kalejiran parte hartzerantz animatzen diren guztientzat entsegu irekiak antolatu ditu Kezka dantza tal-

deak: lehenengoa aste honetako martitzenean egin zen eta bigarrena datorren asteko martitzenean izango da, 19.30etan Portaleko ikastarogelan (3. solairuan). Entseguan koko-dantza irakatsi eta koko-jantziari buruzko laguntza eskainiko dute. Edozein zalantza izanez gero kezka@dantzan.com helbidera idatzi edo 943 53 04 40 telefonora deitu daiteke.



laburrak

FRANTSESA LIBURUTEGIAN

Liburutegian "Réunions dans la Bibliothèque" ekimenean parte hartu nahi dutenekin bilera egin zuten atzo. Dinamizatzaile aurkitu ez dutenez, interesa dutenei euren kabuz joateko proposamena egin diete.



SUSHI GAUAK BELEKO-N

Asteburuan Sushi gauak hartuko ditu Beleko tabernak: gaurko sushi dastaketa prestatu dute eta zapaturako, berriz, sushi afaria. Biharko afarirako izena eman nahi duenak zuzenean tabernara joan daiteke edo, bestela, beleko.taberna@gmail.com helbidera idatzi.

KOKO-DANTZEN ARGAZKIAK

Klub Deportiboko Argazki Taldekoek antolatuta, Kezka dantza taldearen eskutik egiten diren koko-dantzetan egindako argazkiak ikusteko aukera izango Depor tabernan otsailaren 28ra arte. Hilaren hasieratik Juan Ignacio Aizpuruaren lanak ikus daitezke Ambigu tabernan eta Portalea tabernan, berriz, Juan Ramon Larrocearenak.

○ **Andoni Sagama Sarasolaren ordez**

Andoni Sagamak zuzenduko du hemen-dik aumera Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak egitasmoa. Hizte-gigintza alorreko buru zen Ibon Sarasolak kargua laga zuen 2013ko ondarean; ha-la egin zuen Gramatika Batzordeko kide-ek dimisioa aurkeztu eta gero. Miriam Ur-kiak, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko Lantaldeko buruak, lagunduko dio eta Jose Antonio Aduriz euskaltzain urgaz-leak aholkulari lanetan jardungo du. Ho-riekin batera, orain arteko lantaldeko teknikariek (Elizabeth Kruzeta eibartarra, Ainhoa Otamendi, Ane Loidi eta Gabriel Fraile) jardun horetan jarraituko dute.

○ **Pintxo-poteari buruzko spotak**

Euspot, euskarazko spot lehiaketak, hi-rugarren edizioa egingo du aurten. Ira-garki-sortzaileek "Pintxo-potea eta eus-kara" gaia landu beharko dute. Maiatza-ren 9ra arte dago lanak bidaltzeko au-kerak. Lehiaketak 2.250 euro banatuko ditu lau sarietako irabazleen artean: spot onenak 1.000 euro jasoko ditu, Mondragon Unibertsitateko ikasleen spot onenak 500, Publikoaren sariak beste 500 eta Gazteen sariak (18 urte-tik behera) 250 euro. Antolatzaileak Aretxabaletako Udala, Mondragon Uni-bertsitatea eta Arteman Komunikazioa dira. Iaz 22 lan jaso zituzten.



Piriz-en erakusketa ixtear

Domekan itxiko dute egunotan ikusgai izan den **Mari Carmen Piriz artista eibartarraren** margolan erakusketa Untzagako jubilatuko etxean. Oraindik ikusi ez duenak, baina, horretarako aukera izango du gaur arratsaldean, 19.15etatik 21.15etara eta bihar eta etzi, be-rriz, 12.00etatik 14.00etara.

euskararen txokoa

Saria jaso du "Guernica 1913" antzezlanak

Banarte Antzerki Taldearen "Guernica 1913" antzezlanak eskuratu du 2013ko Espainiako Antzerki Garai-kidearen Sari Nagusia. Espainiako Antzerki Amateur Konfederazioak ematen duen saria lan honentzat izatea aipatutako elkarteko bazki-deek urtarilaren 31ko batzarrean erabaki zuten.

Saritutako antzezlanak iaz estre-

natu zuten Banarte Antzerki Talde-koek eta Sardo Irisarri eibartarrak zuzentzen du eta Rafa Herceren testua Txato Etxanizek "Gernikazarra" historia taldearentzat egindako lanean oinarrituta dago. Hemendik egun gutxira, hilaren 22an Soralu-zen antzezlanak ikusteko aukera izango da, 20.00etan kiroldegiko aretoan hasiko den emanaldian.



Vanessa Atecaren margo erakusketa

Casanella Studio-k erakusketa berria zabaldu du estu-dioko erakusketa aretoan: apirilaren erdialdera arte Va-nessa Ateca artista eibartarraren margolan abstraktuak ikusteko aukera izango da. Tatutzailen moduan behar-



an diharduen Atecak oso gazte zela ekin zion marrazteari eta, bere koadroak hainbat herrialdetan era-kustearrekin batera, argazkilari eta musika taldeentzat azalak diseinatu ditu behin baino gehiagotan. Horrekin batera, une-an uneko dekorazio joerei jarraituta, arlo horretako profesio-nalekin elkarlanean jarduten du.

Piano ikasle gazteak Andoainera

Aurreko asteburuan Coliseoan, Eibarko Gazte V. Piano Jaialdian emanaldia eskaini zuten 56 pianojole gazteek asteburu honetan Andoaingo Piano Jaialdian izango dira, urtero egiten den lehi-aketan parte hartzen. Aurreko domekako kontzertuan Juan Bau-tista Gisasola Musika Eskolan eta Isabel Laspiur, Maite Bilbatua eta Maite Berriozabal irakasleekin pianoa ikasten diharduten 18 urtetik beherako gazteek hartu zuten parte.



Coliseoan 56 pianojole gazte izan ziren. LEIRE ITURBE

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IRAIA Gallastegi, printzesa, gaur zortzi urte egiten dozuz-eta



Zorionak, ALAITZ, haraiñegun bost urte bete zenduazelako. Familixakuen partez.



Zorionak, ANE, gaur sei urte egiten dozuz-eta. Muxu potolo bat Malen eta famelixaren partez.



Zorionak, JON, atzo bi urte egin zenduaz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez. Mua!!!



Zorionak, MARA, astelehenian sei urte bete zenduazelako. Etxekuen partez.



Zorionak, IRATI, bixar zortzi urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa! Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, ENEKO, mutil haundi, hillaren 17xan bi urte egingo dozuz-eta. Muxutxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, NAROA, bixar zazpi urte beteko dozuz-eta. Egun ona pasa, ama, aitta, lker eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MIRIAM, astelehenian 10 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat Irene, amatxo eta aitaxoren partez.



Zorionak, MAIALEN, etzi gure printzesak sei urte egingo dittu-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta Ekainen partez.



Zorionak, LIBE, bixar sei urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi asko etxekuen partez!!!



Zorionak, DANEL Alfaye Sanz, hillaren 20xan hiru urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, OIER, gaur zure lehen urtia betetzen dozulako, eta amatxo M^a JOSEri, domekan urtiak egingo dittalako. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HELENA, printzesa, atzo urtebete egin zenduan-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, MARTINen partez.



Zorionak, EKAIN, haraiñegun zazpi urte egin zenduazelako. Etxekuen partez.



1, 2, 3, 4, 5, 6, 7... eta 8! Zorionak, LARRAITZ! Etxeko danon partetik.



Zorionak, OIHANA eta etxekiak, hillaren 5ian jaixotako kopiñagaittik. Disfrutatu! Aitziber, Elene, Laia eta Aneren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

15an: 17.00, 19.45, 22.30

16an: 17.00, 20.00

17an: 20.30

"En la flor de la vida"

Zuzendaria: Nick Quinn



(2 ARETOAN)

15an: 17.00, 19.45, 22.30

16an: 17.00, 20.00

17an: 20.30

"Presentimientos"

Zuzendaria: Santi Taberner



(ANTZOKIAN)

15an: 19.45, 22.30

16an: 20.00

17an: 20.30

"A proposito de Llewyn D."

Zuzendaria: Coen anaiak



(ANTZOKIAN)

15an: 17.00

16an: 17.00

"La Legopelicula" 3D

Zuzendaria: Phil Lord



BARIXAKUA 14

ZIRKOA

18.00 eta 20.30. Il Circo Italiano. Sarrerak: 10-15 euro. Torrekuan.

ANTZERKIA

19.00. "¿Que ha sido eso?". Gaztetxean.

ZAPATUA 15

KALEJIRA

11.00. Usartza Txistulari Taldearen kalejira.

ESKUBIDE SOZIALEN KARTA

11.00. Zirriborroa ezagutzera emateko ekitaldia: nor bere ekarpenak egiteko aukera, Eibarko Kantuzaleak, pintxoak... Untzagan.

AKADEMIA AZOKA

12.00-14.00. Eibarko akademien azoka. Untzagan (karpan).

ZIRKOA

12.00, 17.00 eta 19.30. Il Circo Italiano. Sarrerak: 10-15 euro. Torrekuan.

UMEENDAKO TAILERRA

17.30. Koloreetako gatza tailerra umeentzat. El Corte Inglesean.

KONTZERTUA

23.00. Stai Zitto (Ermua-Mallabia) taldea. Ez Dok tabernan.

DOMEKA 16

AKADEMIA AZOKA

12.00-14.00. Eibarko akademien azoka. Untzagan (karpan).

ZIRKOA

12.00, 17.00 eta 19.30. Il Circo Italiano. Sarrerak: 10-15 euro. Torrekuan.

ASTELEHENA 17

ANTZERKI JARDUNALDIAK

12.00. Eibarko XXXVII. Antzerki jardunaldien aurkezpena. Udaletxeko pleno aretoan.

ZIRKOA

18.00. Il Circo Italiano. Sarrerak: 10-15 euro. Torrekuan.

MARTITZENA 18

IKASTEN

10.00. "Mujeres escritoras, siglos XVIII, XIX y XX" hitzaldia. Jose Domingo. Armeria Eskolan.

IKASTEN

17.00 eta 18.30. Joskintza tailerra. Portalean.

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Kideen arteko tratu txarrei aurre egiteko neurriak hartu" hitzaldia, DBH-ko ikasleen gurasoentzat. Itzion.

KOKO-DANTZAK

19.30. Koko-dantzak ikasteko entsegu irekia. Portalean (3. solairuan).

EGUAZTENA 19

IIKASTEN

11.00. Kafe-tertulia: mugikorra nola erabili. Untzagako jubilatuek.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HITZALDIA

19.00. "Gure Esku Dago ekimenari buruz. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

20.00. Entsegua. Portalean.

EGUENA 20

IKASTEN

10.00. "La España islamica" hitzaldia. Urko Barros. Armeria Eskolan.

TAILERRA

10.00. "Sare sozialak lana bilatzean" talde-tailerra, lan bila dabilen jendearentzat. Portalean.

IKASTEN

11.00. Dantza entsegua, Kezkarekin. Portalean.

ODOLA-ATERATZEA

18.30. Odol-emaileen saioa. Anbulategian.

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Estrategias para potenciar actitudes positivas en la adolescencia" hitzaldia, DBH-ko ikasleen gurasoentzat. La Salle Azitain ikastetxean.

HITZALDIA

19.00. "Arquitectura industrial de Eibar". Amaia Apraiz eta Ainara Martinez. Berreibar-ek antolatuta. Portalean.

MENDI JARDUNALDIA

19.30. Mendi bizikleta tailerra, Tito Agoteren eskutik. Klub Deportiboan.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Entsegua. Portalean.

hildakoak

- Ramon Curras Carballo. 59 urte. 2014-II-7.
- Miren Amutxastegi Aristondo. 81 urte. 2014-II-8.
- Lorenza Saceda Martinez. 97 urte. 2014-II-11.
- M^a Carmen Eguren Zuloaga. 73 urte. 2014-II-11.
- Jose Luis Arriola Ormaetxea. 87 urte. 2014-II-11.

jaiotakoak

- Janire Martinez Jordan. 2014-II-3.
- Adam Akkouh. 2014-II-4.
- June Martin Ferreira. 2014-II-5.
- Bruno Luengo Nieves. 2014-II-6.
- Iker Caño Leibar. 2014-II-7.

HOROSKOPOA

ARIES

Krisia, noiz amaituko ete da? Kokoteraino zaude berba hori entzuteaz. Baina zuk igitzen duzu? Ia ez zaizu nabaritzen.

TAURUS

Aratoste usaina hartzen duzu? Ederto pasatuko duzu eta barre handiak egingo, kokojantzi berezirik aukeratu ez arren.

GEMINI

Egunak joan eta etorri, ez zara saiatzen barruan duzun arazo hori konpontzen. Zeri beldurra? Erraz konpontzekoa da.

CANCER

Oso gustoko ez duzun lana egin beharko duzu. Hasieran oso erakargarria irudituko ez bazaizu ere, oso pozik amaituko duzu.

LEO

Kontuz kalean: ez laban egin! Neguko hotzak kaleak irristakor bihurtuko ditu eta denok dakigu zelako elementoa zaren zu.

VIRGO

Hegazkinak bezain altu hegan egin nahi duzula? Ametsetan agian. Edo, akaso, zure imajinarioarekin. Ondo lurreratzen ikasi.

LIBRA

Ez duzu jakingo zer egin, eskuak izerditu egingo zaizkizu eta gorri-gorri ipiniko zara. Lotsa, zergatik? Gustoko duzu, ezta?

SCORPIUS

Hotz honen aurrean, udan pentsatzen hasi beharko duzu. Hondartzan, beroan, mendi bileretan... planak egiten hasi zaitetz!

SAGITTARIUS

Zeinen ondo hartuko duzun txokolate beroa domeka arratsaldean. Txurroak erosten badituzu, hobe. Afaldu ere ez!

CAPRICORNIUS


Ez da berritasun handirik egongo zure bizitza petralean, baina aldaketa baten aurrean zaude. Onerako da, lasai!

AQUARIUS

Ez izan presarik; gauzak ondo eginez gero, emaitza onak lortuko dituzu. Ez izan presarik, lasai, denbora kontua da-eta

PISCIS

Tripak nahiko nahasiak edukiko dituzu. Ezer jateko gogorik ez duzu izango, baina egin ahalegina. Deshidratatu baino lehen.



erakusketak

- ✓ **Otsailaren 16ra arte**
PATRIK GRIJALVO MILLOIS-EN argazki-collageak. *Portalean.*
MARI CARMEN PIRIZ-EN pintura erakusketa. *Untzaga jubilatuta etxean.*
- ✓ **Otsailaren 28ra arte**
JUAN IGNACIO AIZPURIAREN argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*
JUAN RAMON LARROCEAREN argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
KOKO-DANTZAK EIBARREN argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
- ✓ **Martxoaren 2ra arte**
KARLOS MARTINEZ B-REN "Ordem e progreso" proiektuaren inguruko erakusketa. *Portalean.*
VICENTE IRIONDOREN margo erakusketa. *Topalekuan.*
- ✓ **Apirilaren erdialdera arte**
VANESSA ATECA-REN margo erakusketa. *Casanella Studion (Juan Gisasola, 16)*

lehiaketak

- ✓ **Hitz bikoteen Lehiaketa**
Egin beharrekoa: Izena + adjektiboa erabilia, hitz bikotea osatzea (euskaraz). **Lanak aurkeztea:** Otsailaren 16ra arte, euskaltegia@eibar.net / eibar@aek.org helbidera edo zuzenean euskaltegiatako batean lagata. **Informazio gehiago:** www.eibarko-euskara.com
- ✓ **Emakume Langilearen Eguneko Lan Artistikoen II. Lehiaketa**
Gaia: Martxoak 8. **Norentzat:** 16 urtetik gorakoentzat, edozein teknika erabilia sortutako artelanekin. **Lanak aurkeztea:** Arrate Kultur Elkarte (astelehenetik eguenera, 17.00-19.00), otsailaren 28a baino lehen. **Saria:** 200 euro. **Informazioa:** Arrate Kultur Elkarte, 943-202299 (mezua laga) edo arratekultu@gmail.com

farmaziak

- ✓ **barixakua 14**
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **zapatua 15**
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **domeka 16**
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **astelehena 17**
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **martitzena 18**
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **eguztena 19**
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguenen 20**
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **barixakua 21**
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

**2014 urte osorako
GAUEZ
Azkue (T. Etxebarria, 4)**

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

	4			8	7
7				6	
	1	2	7	6	
4	7				2
	5			3	
1				5	9
	2	9	3	7	
		8			5
5	4				3

SUDOKUA

3	6	1	9	8	2	5	7	4
2	9	8	7	5	4	6	1	3
4	5	7	1	6	3	9	8	2
5	1	2	6	4	7	3	9	8
9	7	6	5	3	8	4	2	1
8	3	4	2	9	1	7	6	5
7	2	9	3	1	5	8	4	6
1	4	3	8	7	6	2	5	9
6	8	5	4	2	9	1	3	7

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, balkoia eta ganbara. Kalefakzioa. Leiho berriak. Jantzita, bizitzera sartzeko moduan. Tel. 671-439939.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Asola-Igartzan. 3 logela, egongela, 2 bainugela, guztiz jantzitako sukaldea, estalitako terraza handia eta garajea. 88 m² "erabilgarri". Hegoaldera begira. Tel. 679-649548.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta trasteroa. Iggogailua. Guztiz berrituta eta argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.

1.2. Errentan

- Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 628-882295.
- Emakume arduratsua pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 679-910991.
- Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 650-152866 eta 698-604531.
- Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. 400 euro ordainduko nituzke gehienez. Tel. 633-843512.
- Esteponan (Malaga) pisua alokagai martxoan, apirilean eta maiatzean. 3 logela, 2 bainugela eta egongela. Portu, hondartza eta herritik gertu. Itsasora begira. Tel. 943-201294 eta 657-799311.
- Pisua alokagai Jardinetan kalean. 3 logela eta egongela. Tel. 690-018786.
- 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-337083.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Mercedes Benz, E-320 CDI klasea salgai. 224 cv. 118.300 km. 2007 urtekoa. Egoera onean. Tel. 630-975501.
- Citroen Xsara salgai. Diesel. 90 cv. Garajejan gordeta beti. Egoera onean. Prezio interesgarria. Tel. 656-733131.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Lokala salgai Untzagan. Merke. Tel. 685-916047.

3.2. Errentan

- Taberna alokagai Ipuruan (Egiguren-tarren). Tel. 658-595764.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Erizain laguntzaile eibartarra eskaintzen da goizez nagusiak laguntzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 616-607121.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta nekazari jarduteko. Tel. 632-423984.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari 2. mailako ofizial moduan. 14 urteko esperientzia eta erreferentziak. Ordu-tegi zabala. Tel. 634-853845.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Osasungintzan esperientzia eta erreferentziak. Tel. 633-107239.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 600-332954.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 608-293711.
- Mutila eskaintzen da pegorak edo garajeak garbitzeko eta mantenimendu lanak egiteko. Tel. 692-332871.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 675-358119.
- Emakumea eskaintzen da sukaldelaguntzaile moduan, umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 697-735046.
- Geriatria eta gizarte-hezitzaile ikasketak dituen emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 688-901667 eta 943-530908.
- Neska eskaintzen da lan egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 656-648168. Laura.
- Neska eskaintzen da arratsaldean eta gauetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 636-841158.
- Neska eskaintzen da 13.00etik aurrera umeak edo nagusiak zaintzeko eta pegorak eta bulegoak garbitzeko. Tel. 620-757528.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 943-201210.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da gauetan nagusiak zaintzeko. Tel. 632-337083.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-865726.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 638-205490.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-023214.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 679-910991.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-994669.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 609-842165.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 639-730884.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-126668.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 677-860971.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Baita gaixoak ospitalean ere. Tel. 638-249775.
- Neska eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 638-249775.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 642-609678.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-239368.
- Mutila eskaintzen da sukaldari lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-053415.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako: peoia, garbiketara... Tel. 632-192408 eta 632-569245.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 656-837587.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 663-911069.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta tabernak garbitzeko. Tel. 636-419814 eta 631-282203.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 631-466742.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 600-332954 eta 943-700229.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 606-354982.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-700902.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-866929.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Orduka. Tel. 699-232823.
- Gizonezkoa eskaintzen da tabernak edo soziedadek garbitzeko. Tel. 603-550465.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-597073.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-418130.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Balay lehorgailua salgai. Ia berria. Tel. 943-254175.
- Bi plazako sofa salgai. Beigea, chesloi-arekin eta etzangarria. Oso merke. Tel. 606-882043 eta 943-043008.

+ OSASUN GUDA

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• Katarata ebakuntzak
(lente multifokalarekin)

R.F.S. 294/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOIA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746**

PODOLOGOIA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOIA

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOIA
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoan
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA

Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66
a_garitaonandia@hotmail.com



Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023



HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira

EIBARKO AURREKONTUAN SARTZEA LORTU DITUGUN EGITASMOAK

ENPLEGUA: 74.300€

- Eibarko Ekozenterra: erabilitako materialak (altzariak, erropak, liburuak, etab) berreskuratu eta ondoren salduko dituen zentrua. 15-20 lanpostu sortuko dira EMAUS fundazioarekin elkarlanean. (18.000€ bideragarritasun plana egiteko eta 2015ean martxan jartzeko konpromisoa).
- Bakarrik bizi diren pertsona nagusientzat suteen kontrako sistema: suteak ekiditeaz gain, bazterketa egoeran sartzeko arriskuan dauden pertsona hauen jarraipena egingo da. (40.000€).
- Gertaturi diru laguntza. Eibarko enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza bultzatzeko Teknikerren bitartezko aholkularitza. (16.300€).



EUSKARA: 22.300€

- Euskararen erabilera bultzatzeko. Eibarren gure hizkuntzaren erabilera bultzatu duten proiektuak laguntzeko (22.300€).

AURREZPEN ENERGETIKOA eta HONDAKINAK: 72.300€

- Aurrezpen energetikoan inbertsioak: Argiteri publikoan hobekuntzak, LED teknologia erabiliz kontsumoaren %70 murriztu daiteke, faktura murriztuz eta CO2 isuriak gutxituz. (72.300€).
- Hondakinen jarraipen mahaia sortzea. Eibarko birziklatze tasak hobetzeko asmoarekin proposamenak egingo dituen parte hartze gunea. GARDEN herritar taldeak egindako eskariari erantzunez.



ERREBAL: 36.000 € + PROIEKTUA

- Errebal martxan jartzea. Parte hartze prozesuaren amaiera dinamizatzeko eta ideien lehiaketako irabazleentzat (36.000€). Horretaz gain eraikuntza proiektua konkurtsora ateratzeko behar beste diru jartzearen konpromisoa.

GUZTIRA 204.900€ enplegua sortzeko, euskararen erabilera bultzatzeko, enpresa txikiak laguntzeko, gizarte alorrerako, energia aurrezteko eta Errebali behin betiko bultzada emateko.